

INGURUMENA ▶

Uliatik Mendiolara

Uliako hainbat txoko txukundu eta gero, Mendiola inguruan dabil Josetxo Mayor orain lanean; bertako bide bat garbi-garbi uzten ari da, sasi guztiak kenduz

RAUL PEREZ

Josetxo Mayor aspalditik dabil Uliako bidezidorrak txukuntzen. Erretiratu zenetik lan hori du pasio. Iazko azarotik baina, Uliatik pixka bat urrundu da. Mendiola inguruan dabil orain lanean. Bertako bide bat txukuntzen ari da. Arroketara jaisteko bidearen inguruan dabil, hain zuzen ere.

Azaroa arte bide horretatik igarotzea oso zaila zen; sasiaren ondorioz, estu-estu zen. Orain, ordea, bidearen zati handi batean ez dago sasiak kentzeko beharrik aurrera egiteko. Batez ere segarekin saskiak kentzen ari da Mayor. Lan horri esker, bide horretan barna pasatzen diren mendizaleak erosoago dabilta eta gainera, sekulako paisaiaz goza dezakete; aurretik ez zuten aukera hori, sasiak ez zutelako itsasoa ikusten uzten. Sastrakekin arazo bat edo beste izan du Mayorrek, baina ezerk gutxi kikitzen du: «Behin baino gehiagotan begietan sartu zaizkit eta medikuarengana joan behar izan dut. Errieta egiten dit, baina nik hona etorritzen jarraitzen dut», dio.

Sasiak kentzeaz gain, bide horretako koskak leuntzen ahalgintzen ari da Mayor. Hori buruhauste ugari sortzen ari zaio. «Toki batzuetan harriak leuntzea ez da erraza».

Alkatearen oparia

Josetxo Mayor pozik dago iaz Odon Elorza alkateak sasi-garbitzeko makina oparitu ziolako eta hari esker errazago egiten



Mendiola inguruan ari da orain Josetxo Mayor. Bidea garbi-garbi uzten ari da. R. PEREZ



Mayor Jose Luis Gutierrez mendizale amaratarrekin. Solaskideak ez zaizkio falta Mayorri. R. PEREZ

du lan: «Berez, alkateari eskatu nion makina eta Parke eta Lorategi Saileko lagunek eman zidaten. Oso ondo moldatzen

naiz haiekin. Aitona esaten didate ikusi orduko».

Sasiak kendu eta koskak leuntzeaz gain, beste lan ba-

tzuk egiten ari da Mayor Mendiola inguruan. Hala, txoko batean, euria egiten duenean bideak lokatzaz bete ez dadin, bidetxo bat egin du lurlean. Hartara ura ez da pilatzen.

Hitz jario aparta ere badu Mayorrek eta egunero mendizale askorekin topo egin eta solasalditxoak egiten du. «Nire lana eskertu edo ez, hemendik pasatzea da seinalerik onena. Sakonean egindako lana eskertzen dutela esan nahi du niretzat mendizaleak bide honekin barrena ikusteak. Lehen ez zen ia inor igarotzen». Bidea, mendizaleentzat behintzat, ezaguna dela dio: «CR-21 delako ibilbidearen parte da».

SEI HILABETE

Gutxi gorabehera, urte erdia darama Josetxo Mayorrek Mendiola eta Uliako bidea txukuntzen

MAKINA BERRIA

Iazko apiriletik Mayorrek makina berria du sasiak kentzeko; Parke eta Lorategi Sailak oparitu zion

Jose Luis Gutierrez mendizale amaratarrak ondo ezagutzen du Mayor txukuntzen ari den bidea: «Sasiak desagertzen ari zirela ikusi genuenean, pentsatu genuen behar bada obrak egiten ibiliko zirela, baina segituan konturatu ginen Josetxoren lana zela. Argi zegoena zen naturak berez ezin zituela sasiak desagerrarazi». Gutierrezek, bidearen erosotasuna ez ezik, bistak goraitatu ditu: «Luxua da. Lehen itsasoa ikusteko burua sasi artean sartu beharra zegoen, eta noski hori egitea ez zen gozoa».

Josetxori lan asko geratzen zaio oraindik Mendiola bidean azaroan hasitako bukaturtzeko. «Ni bezalako sei lagun beharko lirake lan hau guztia egiteko», dio irribarretsu. Hala ere ez du amore emango, nahiz eta lekukoa hartuko dionik, oraingo, ez dagoen. «Garai batean bilobak txakurra zuen eta nirekin etortzen ziren. Hala ere, etortzei utzi zion».

6.000tik gora egun Uliak inguruan lanean

Josetxo Mayor Zemoriyan jaio zen 1932ko abenduaren 6an. Beraz, aurten 74 urte beteko ditu. Abenduan ez ezik, irailean ere izango du zer ospaturik, nahiz eta oparirik jasoko ez duen. Irailearen bukaeran 20 urte beteko dira, egunero-egunero Uliara igotzen hasi zela.

Lanbidez garraiolaria izan zen Mayor —bere enpresa izandakoaren jantzia eta txanoa jantzen du mendian barrena ibiltzeko—. Lanean zebileenean, asteburuetan edo jai egunetan baino ez zen Uliara igotzen. 1986ko irailean, erreti-

roa hartuta, egunero Uliara igotzeari ekin zion.

Josetxo Mayor Intxaurren don bizi da. 05:30 aldera jaikitzen da. Bizarra moztu eta gosaldu ondoren, Uliarantz abiatzen da, oinez, errepide nagusitik. Goi-goian, taberna zenaren eraikineko txoko batean du aldagela. Bertan tresna guztiak ditu. Lanerako jantzia soinean jarri ondoren, mendian barrena sartzen da, gutxi gorabehera 11:00ak arte. Ordu horretan etxerako bidea hartzen du. Batzuetan oinez, eta beste batzuetan, autoz; baso-

zainarekin jaitsi ohi da Josetxo. Auzora iritsitakoan batekin eta bestearekin solasalditxoak egin ohi du eta etxera. «Etxekoek badakite non ematen ditudan goizak. Beraz ez dute nigatik zertan kezkatu», dio Mayorrek umoretsu.

Hileko lehen egunean baino ez du kale egiten. «Egun horretan erretiroa kobratzera joaten naiz». Eguraldi bikainarekin baina baita negu gorriko giroarekin lan egin izan du Mayorrek Uliak. Elurrak baino ez dio beldurrik ematen: «Elurrak eta batez ere izotzak irristakor



Mendiola aldean lana geratzen zaion oraindik Mayorri. R. PEREZ

uzten dute zorua eta ipurdiko galanta hartzeko arriskua dago».

Uliara igotzen hasi zenetik, lan asko egin ditu Uliak. Esate baterako, Kutrailako beheko aldean, Uliako harrobi zaharretik harria ateratzeko zegoen gurdibidea guztiz utzita zegoen. Mayorrek aitzurra eta palarekin bidea txukundu zuen.

Orain denbora gehiena Mendiola pasatzen badu ere, Uliak lehentasuna du Mayorrentzat. «Ikusten badut Uliak premiazko zerbait egin beharra dagoela, Mendiola bide bese egun baterako uzten dut eta kito».